

XXXII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,
 baztertu gugandik eragozpen guztiak,
 gorputz eta arimaz geure buruaren jabe izan gaitezen
 zure nahia betetzeko.
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Mak 7, 1-2. 9-14

*Izadiaren erregeak biztu egingo gaitu
 betiko bizirako.*

Makabearren liburutik

Egun haietan, preso hartu zituzten zazpi anaia eta bere ama; legez galerazia zegoen txerrikia jatera behartu nahian, zigortuarazi egin zituen erregeak idi-zainezko uhalez.

Anaia zaharrena honela mintzatu zen denen izenean: «Zer nahi duzu guregandik? Prest gaude bizia emateko, gure arbasoen Legea oinperatu beino lehen».

Bigarrenak ere, azkenetan zegoela, honela esan zion: «Zuk, gaizkiletzar horrek, oraingo bizia kentzen diguzu; baina izadiaren erregeak biztu egingo gaitu betiko bizirako, Haren Legearengatik hiltzen garenok».

Gero, irain jostaketan hasi ziren hirugarrenarekin; mihia ateratzeko eskatu zioten, eta hark berehala atera zuen eta eskuak ere kementsu luzatu zituen. Eta gizonki mintzatu zen: «Jainkoarengandik ditut gorputz-atal hauek eta Haren legeengatik gutxiesten ditut; ziur nago berriz ere hartuko ditudala Harengandik». Harriturik utzi zituen errege eta harekin zeudenak, oinaze-minak huskeritzat zeuzkan gazte kementsu hark.

Hura hil zenean, neke berak eman zizkioten laugarrenari, eta azkenetan zegoela, esan zuen: «Balio du gizakien eskuz hiltzeak; Jainkoak biztuko gaituela uste baitugu. Zuk, ordea, ez duzu izango bizitzarako bizterik».

ERANTZUN SALMOA: Sal 16, 1. 5-6. 8 eta 15

R/. Esnatzean zure aurpegiz naiz aseko, Jauna.

Entzun, Jauna, nire auzi bidezkoa,
 adi ezazu nire deiadar hotsa;
 hartu belarriz nire arrena,
 gezur gabeko ezpain hauena. R/.

Nire urratsa zure bideetan sendo dut tinkatu,
 nire oinak ez dira kolokatu.
 Deika naukazu, Jainko, entzuten bainauzu,
 aldera iezadazu belarri hori, nire hitza entzun ezazu. R/.

Gorde nazazu begininia bezala,
 zure hegalean itzalpeak ezkuta nazala.
 Nik, berriz, zuzentasunean, zure begitartea dut ikusiko,

esnatzean zure aurpegiz naiz aseko. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ts 2, 16–3, 5

*Jaunak sendo zaitzatela
egite eta hitz on guztietarako.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunak eta Jaungoiko gure Aitak poz ditzatela zuen bihotzak, eta sendo zaitzatela egite eta hitz on guztietarako; Jainko gure Aitak hain maite izan baikaitu eta grazia hutsez eman digu betiereko poza eta zorionaren itxaropena.

Gainerakoan, senideok, egizue otoitz gure alde, Jaungoikoaren hitza zabaltzen joan dadin aurrerantzean ere eta ospez hartua izan dadin zuen artean bezala, eta gu onik atera gaitzan gizaki oker eta gaiztoen eskuetatik, sinesmena ez baita guztiena. Leiala da Jauna; Berak sendotuko zaituzte eta gaiztoarengandik gordeko. Uste osoa daukagu Jaunarengandik, guk agindutako guztia egiten duzuela zuek, baita egingo ere. Jaunak zuzen ditzala zuen bihotzak Jaungoikoa maitatzera eta Kristorengan itxaropena izatera.

EBANJELIOA: Lk 20, 27-38

Aleluia: Apk 1, 5a. 6b

R/. Aleluia.

V/. Jesu Kristo da hilen arteko lehen semea;

Berari aintza eta agintea

gizaldi eta gizaldietan. Amen. R/.

Irakurgai laburragea egin nahi bada, [] kako artean ematen den zatia utz daiteke.

Ez da hilen Jainko, biziena baizik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik

Aldi hartan, hurbildu ziren Jesusengana saduzear batzuk, berpizterik ez dela dioten horietakoak, eta [galdetu zioten: «Maisu, Moisesek hau utzi zigun idatzirik: "Norbaiti anaia hilko balitzaio seme-alabarik utzi gabe, har beza hildakoaren anaiak emazte hori, eta sor biezazkio ondorengoak bere anaiari". Zazpi anaia ziren, bada. Ezkondu zen lehenegoa, eta seme-alabarik gabe hil zen; bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta horrela zazpiak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen hauen emaztea ere. Andre hori, hilen berpiztean, haietako noren emazte izango da? Zazpiek izan baitzuten emazte.»]

Jesusek erantzun zien: «Mundu honetako gizon-emakumeak ezkontzen dira; baina beste munduan eta hilen berpiztean parte izatea merezi dutenak, ez dira ezkonduko; hil ere ezin hil dira, aingeruak bezala baitira, eta Jaungoikoaren seme-alaba, berpiztearen seme eta alaba direlako.

Eta hilak berpizten direla, Moisesek berak adierazten zigun, sasiko hartan Jaunari, Abrahamen Jainko eta Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko deitzen diorean. Ez da, beraz, hilen Jainko, biziena baizik; Harentzat bizirik baitaude guztiak».

Oparigaien gainekoa

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintza honi;
zure Semearen nekaldiko misterioa ospatzen dugunok
haren fruituak irits ditzagun.
Errege bizi baita.

Jaunartze ondorengoa

Eukaristia harturik, eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,
zure Espiritua isur diezaguzula,
zeruko indarra hartu dugunon bihotzetan
leialtasunaren graziak iraun dezan.
Jesu Kristo.